


BANAKETA UNIFORMEA

$[a, b]$ tarte bateko balio posible guztiek probabilitate berdina dutela irizten denean ezartzen den probabilitate-banaketa da. Probabilitate-berdintasunaren suposizio hori ohikoa da aldagai bati buruz erabateko ziurgabetasuna duguenean, betiere tarte baten baitan.



Dentsitate-funtzioa:
 $f(x) = \frac{1}{b-a}; a < x < b$

Ikusten denez, bi parametro ditu: a eta b (a eta b zenbat diren, desberdina izango da).

Notazio estatistikoa:
 $X \sim U(a, b)$

Itzaropena: $\mu = \frac{a+b}{2}$
Bariantza: $\sigma^2 = \frac{(b-a)^2}{12}$

Egilea: Josemari Sarasola